


## URA

### URA LOTAN.


*Uretan murgildu nahi dut zerura erortzeko.*

*P. Neruda*

*Juan Mari Arrizabalaga*




*UR TANTA*



HARRI BAKARREKO ZUBIA

*Oñatiko Kortabarriko zubia (Gipuzkoa).- Harriak eta urak norabide desberdina ote daramate? Ala sendotasuna eta dinamika, tinkotasuna eta mugikortasuna elkartzen ote dira naturaren erdian. Julio Nuñezek dioenez, abozko tradizio baten arabera, biru idi parek leherrenak egin behar izan zituzten igarobide honetarako pieza bakarreko lauza bat garraiatu ahal izateko. Zubiarean argiak 3,8 metro bartzan ditu. Zubia komunikazioa izanik, bemen ikusten dugun hau paisaiaren bi alderdien besarkada bat da.*



SAN KRISTOBALEKO ZUBIA

*Bilbotik irteko Gaztelako bidea bartuta, La Peñan, Miribilla mendiaren oinean, bazen behin batean irla oibandar txiki bat San Kristobal zeritzana.. Bertan bazegoen eraikin apal bat, irin-erota zahar bat hain zuzen. Gero eraikin modernista dotore bat, 25 metroko bi tximinia garai eta biru zubiz hornitu zuten. Baina denboraren poderioz, landa-irla desagertu zen hiri baten ur-beharrak eraill, akabatu, “garbitu” zutelako. Eta ordutik denok pixka bat tristeago gaude.*




ZUBIA ALMADIEKIN

*Burgiko zubia, Ezka ibaian. Erromatarra.- Behin batean erromatarra etorri zen bere koraza eta guzti. Ezka ibaiak zeharkatu, eta... kulturaz beteriko zubi bat utzi zigun, ur gardenen irazki lez. Zubi bikain hau ibaiaren alde batera makurturik dagoela ematen du, bidaiariei pasabidea errazteko. Arkuen bihurgune ederrak, berriz, bere magalera biltzen du ur lasterra. Zubi honek mende luzez ikusi ditu almadiak ibaian behera jaisten.*




BIZKAIKO ZUBIA

*Ibaizabal ibaian.- Burdina uraren aurka. Teknologiak uraren bidea saibestu du: Burdinaren eta uraren arteko ulertezina. Ibilgailuak eta bidaiariak ibaiaren alde batetik bestera daramatzen 45 m altuerako zubi bonen silueta nagusi ageri da itsasadarraren sarreran, Areeta eta Portugalete artean. 1893an Eiffelen dizipulu aurreratuenak eraikia, 1937an Bilbo menpean hartu baino lehenago dinamitua eta 1941ean Aracil ingeniariak berreraikia. Eraikuntzan erabiltzen hasi ziren teknologia berrien eredutzat bar dezakegu.*



GARESEKO ZUBIA


Arga ibaian. Erromanikoa, XI. mendekoa. Urak zubi izan nabi zuen, eta zubi biburtu zen. Ibaiak ortzi izan nabi zuen, eta ortzi biburtu zen. Oso leku garrantzitsua izan da Done Jakueren Bidean. Bere sei arkuek, horma-bularren gainean egindako leiboekin, garai bateko zubiaren edertasun paregabea dute oraindik. Bi osagai bakarrik falta zaizkio zubiari: dorre txiki bat (erromesek, bidesaria ordaintzen zutenekoa) eta txoritxo baten irudia; kondairak dioenez, txoriak ibaiko uretan bustitzen omen zituen begoak eta gero Ama Birjinaren irudia freskatu eta garbitzen zuen baiexekin.



AKUEDUKTOA. NOAIN

XVIII. mende bukaerako iruindarrek ezin zuten sinetsi arku ilara baren gainetik ur gardena Zubizako iturburutik Iruñean Luis Paretok eraiki zituen iturrietara ziboala ikustean. Ubidearen kanalizazioak 16,5 km zituen, baina zatirik bereizgarriena Noainen kokatzen da. Bere 1.245 metro 97 barrizko arkuren gainetik bere garaiko azpiegitura hidrauliko harrigarri eta faraoniko gertatu ziren. Baina eraiki eta ebun urtera, ubidea erabiltzeari utzi zitzaion.






ARRIARANGO URTEGIA


*Urtegi bat paisaia aldatzeko gai den lan arkitektoniko bat da. Beste aldetik arkitektura erraldoi hauek “berez nabiko dira” la uste edo eta onartzen dugu. Nestor Basterretxeari, Arriarango urtegian jarduten duenean 1993an, jada izaera, paisaia, arkitektura eta eskulturaren arteko barremana ulertzeko beste modu bat ikusten diogu.*

*Kasu honetan obra honen dimentsioak, kokapen simetrikoak eta masa bolumentrikoen elkar moldaketak eskulturaren izaera biziki aberasten dute.*




BARROETAKO PRESA. MARKINA-XEMEIN

*Ura lanean jarri genuenekoa. Euskal Herriko Kantauri tsurialdean, ibai eta errekek ez dira emari handikoak, baina bai iraunkorrak, eta XVII. mendean ura ezinbestekoa zen presak egin eta errotak mugitzeko edo oletan lanean aritzeko. 1694an, Pedro Bernardo Villarreal ingeniariak ostikodun presak egiteari ekin zion. Halako presekin, Pedro Bernardok ur gebiago biltzea, eta, beraz, bere burdinoletan indar gebiago lortu zuen ekoiizpenaren mesederako. Eraiki zituen bost presetako bat, hemen dakusaguna, Osillaingoa edo Barroetakoa Markina-Xemeinen dago.*



GURPIL HIDRAULIKOA

*Gari edo arto aleak ehotzeko, esklabo edota animaliez baliatzen ziren basieran, baina laster ikasi zuen gizakiak naturaz baliatzen. Haize-errotak eraiki zituzten basieran eta gero, ur-errotak edo gurpil hidraulikoak. Alea errotetan gurpil artean ehotzen zen. Denbora igaro abala, gurpil hidraulikoa ehotzeko ez-ezik, ebuna jotzeko, zerra mekanikoei eragiteko, mailu eta ponpetan, hauspoeu martxa jartzeko, eta batez ere metalen forjako mailuak mugitzeko ere erabili zen.*




ERROTAK. LASTUR

*Lamien bizitokitzat eduki zituzten Lasturko bi errotak benetako ondare-erlikia dira. XI. mendean geroztik errota hauek erreka baten urak mugitu ditu, astiro-astiro, ura bi urmaeletan bilduz. Irin bikaina ehotzen da oraindik ere errota hauetan, erritmo gozoan uraren indarrari esker. Errotek etengabe ehotzen dituzte artoa eta garia, ardatzaren zura baltzekoa baita. Sekretu hori Basajaunek baino ez zekiten, egun batez Martin txiki baien artera joan eta han zer egiten zuten ikusi zuen arte. Orduan jakin zuen marruskadurak haltza borren erraz ez zuelako erretzen erabiltzen zutela zur-mota hori oinarritzko pieza bartan.*




LIXIBA. ZERAIN

*Hara 1950eko hamarkada arte lixiba lortzeko usadiozko prozedura zein zen: Lehenbizi upel bat jartzen zen barri biribil eta zapal baten gainean. Upel barnean garbitu beharreko arropa sartzen zen, geruzetan kokatuta: gebien zurutu behar zen arropa upel hondoan. Gero, geruzen gainean oihal, zaku edo zaku-oihal zuri bat, eta horren gainean errautsa, ondo xehatuta eta horrez gain gatz mineral eta erramu hosto ugari. Gero, ur bero-beroa isurtzen zen upel barrura, eta horrela gatz mineralak disolbatzen ziren. Horri esker lortzen zen lixiba. Hara Zeraingo adibidea.*




LEITZAKO GARBILEKUA (1863)

*Gure etxeetan garbigailu modernoak agertu ziren arte, arropak garbitzeko erreketan barriak jartzen ziren, eta garbitzailak belauniko jarduten ziren, horretarako. Harriaren gainean arropak xaboitu eta marruskatzen zituzten, errekan garbitu eta, ondoren, ondo bihurritu, ura kentzeko. Geroago udal batzuek baize eta euritik babestutako udal-garbilekuak eraiki zituzten, iturriko urarekin. Horietako bat da garbileku hau bera. Arropak eta ebunak garbitzeko lana emakumeek egiten zuten ia beti, baina garbilekuetan gizarte-bizitza handia sortzen zen.*




*ELUR-ZULOA. BURGI*

*Mesopotamiarrek izotza eta zapal dutako elurra lurrazpiko zulotan gordetzen zuten etxeko erabilerarako. Greziar eta erromatarrek gustuko zuten edari botzak edateko. Denborarekin, izotza sukaldaritzan sartu zen elikagai freskoak kontserbatzeko edota edari hotzez disfrutatu abal izateko, eta baita sukarrari aurre egiteko ere. Orduan izoztegi eta elur-zuloen kopurua handituz joan zen. Azkenean industrializazioak zereginik gabe utzi zituen. Burgiko arroilako natur erreserba liluragarrian elur-zulo hau ikusten abal da.*




*ITURRIA*






BARRIKETAKO URA. AZKOITIA

*Azkoitiko barririk 1831 urtekoak dira. Bertatik ateratzen den ura, azkoitiarren gustukoena da. Sagardoa zurezko kupeletan heltzen da. Ardo ondua haritzeko kupeletatik dator. Eta ur freskorik gozagarriena Azkoitiko barriketatik ateratzen da. 1813ko erreserba alajaina. Harrigarria? Kontraesana? Paradoxa? Joan eta probatu.*



LAU KAINUKO ITURRIA. ZESTOA (1792)

*Harrigarria dirudi, baina Lau-iturri eraikitzeko garai hartako artistarik ospetsuenek esku hartu zuten. Bitxia iturriaren kokapenari buruz erabiltzen diren argudioak: "...obi denez, emakumeak izanik ura ekartzen dutenak..., eta gainera egunean bi aldiz..., ordu bonetan herriko gazterik kaskarin eta ausartenen irainik eta erasorik traketsenak jasateko arriskuan egongo lirateke; are gebiago, antzinako mataderian, herritik hain urrun egoterakoan, inpunitate osoan egin abalko lukete. Kalte bauen beldur izateko arrazoi gebiago egongo litzateke, neskameak eta beste emakume gazteak, obi denez, ilundu eta gero joango balira".*




OTEIZAREN ITURRIA. ALTZUZA

*Altzuzan, bere museotik mendian gora, Oteizak harrizko iturri bat eraiki zuen, gorria, pertonek zein animaliek edateko modukoa; goi-abstrakzioko ariketa bat da, bere ornamentu guztia keinu batetik hartzen baitu: norbaitek, edateko makurtzen denean, barrian bermatu eta ura isurtzen duen mekanismoa martxan jartzen duenean egindako keinutik. Iturri horren ondoan, Oteizak Gernikako arbolaren urtadar bat landatu zuen, oraindik ere baziz doana.*



*ITSASOA*



ITSASOARI BEGIRA 2


*Zazpi mendeko gauean gaude. / Gure lore eta sasi, / irrintzi, oibu, ele ta ulu, / marmario ta garrasi, / baize enbata, brisa, galerna, / gaur garbi, bibar nabasi, / xake taularen zuri beltzetan / arrats gozo, egun gazi. / Ai itsasorik ez bageneuka / zeri so negarrez basi.*

*Gure zubaitza landatu dugu / amildegia muturrean. / Adarrak daude ertzetik haruntz; / sustraiak, berriz, lurrean, / bibotz hesteak estu belduaz / esku baten aburrean. / Bertso berriak jartzera noa / bere indar laburrean. / Nola malco bat isuritzen den / Itsasoaren aurrean. Jon Maia*




TRAINERUA

*Zein lehenago iritsi itsasontzira Pasaiaiko portura atoian eramateko, zein lehenago iritsi portura arraina saltzera, zein lehenago iritsi... Uraren aurka... uraren alde...uraren nagusi... uraren menpe...Mendeetako laneko lebia kirolik ikusgarrienetariko bat biburtuta.*



*BAIONAKO ITSASARGIA*

*Aturriren bokalean ozeanoarekin mugakideak diren uren elkartze barea zelatatzen duen zaintzailea, suntsitutako zubien zuinak gaindituz Euskal Herriak milurteko berrian Europarekin izango dituen loturak finkatuko dituen aingura.*



*ITSASARGIA. BIARRITZE*


*Bale-arrantzaleen herri idiliko bat itsaso berde, lasai eta dastagarri ertzean, moda eta luxuzko enklabe ederrean jai eta amodio eztién, azpikerien, itsaso zakarren, enbaten, abenturen eta hondoratzeen lekuko gertatu zena. Eta San Martin puntan, hantxe zegoen hori dena argitzen zuen kandela.*






ITSASOAREN FERKA. SOKOA

*Sokoako gotorleku eta dorrearen ondorengo duin eta modernoa. XVIII. menderako jada arrantzaleei babesa eskaintzen zien, batez ere arrantzalea den herri bonetan. "Europako onenen artean aintzat hartuta dauden marinelei, ausarkeriara iritsi arte adoretuak direnei eta Donibane Lobitzunerako bidean ekaitzak jotako untziei laguntza ematen dietenei, alegia", eskainitako monumentu dotore eta sofistikatua. Itsasertz bonetara bakea iritsi denean, itsasoak emeki ferekatzen du bere magala.*



*ITSASOA, LAGUN ALA ETSAI?*



## UR BEDEINKATUA

*Ura bizitzaren sorburua da. Euria zorioneko bizitzaren iragarpena. Iturri jakin batzuetako urak naturaz gairik onbideak ditu. Eremuen gainean ura ibinzatzeak hurrak behar duen euria adierazten du. Gatza, gaixotasunaren irudi, uretara bota eta bertan disolbatu eta desegiten da. Erlitioarekin eta magiarekin loturiko praktikak dira. Ur bedeinkatua Mariri eskeak egiteko erabiltzen da baren bizilekura joz, edo ekaitza iragartzen duten lainoei laguntza eskatzeko. Gainera, haurrak, etxeak, soroak eta ganadua ibinzatzeko ere erabiltzen da.*